



Zurriolako Ataria

81. alea 2019-12-13

HH3koak krocketak egiten

Aurreko ostegunean 3 urteko guraso batzuk krocketak egiten laguntzera etorri zitzaizkigun Sorora. Mantalak jantzi, eskuak garbitu eta gustura ibili ginen sukaldari lanetan!



LH2koak Untzi Museoan

LH2ko ikasleek balearen arrantzari buruzko informazioa eta bizipenak pilatu dituzte Untzi Museoan. Bertan XIII eta XVI. mendeen artean euskaldunontzat hain garrantzitsua izan zen balearen ehizaren teknikak, arrantza-guneak, ontzi motak eta abar ezagutu zituzten; baita balearengatik lortutako hainbat produktu ezinbestekoak zirela garai orduko garai hartan: Haragia, azala, koipea...



Modesto Kapitaina LHn

Joan den astean Joxerra Fatxado antzerki irakasleak prestatu duen "Modesto Kapitaina-ren" bakarrizketarekin gozatzeko aukera izan zuten LHko ikasleek. Itsas bizitzari buruzko abentura polit bat kontatu zigun, itsasoa zaintzeko beharra azpimarratzeaz aparte.




Bertso emanaldia LH6n

Aurreko astean LH6ko ikasleek eskutik bertso saio bikainez gozatzeko aukera izan zuten Hurrako antzokira hurbildutakoek. Hiruhileko honetan buru belarri bertsoak lantzen aritu ostean, emanaldi eder askoak egin zituzten gure bertsolariok!



Elkarmaker!

DBH3ko ikasleek aste honetan aurkeztu dizkiete Mondragon Eskola Politeknikoko ikasleei euren proiektuen maketak, azken hauek prototipo bana elkar lanean diseina dezaten. Kontua da hau guztia **elkarmaker** proiektuaren baitan garatutako ekimena dela eta, besteak beste, gure LH3ko ideei miragarrietan oinarritu direla DBHkoen proposamena. Elkarlana eta ekintzailetasuna!



Kirol bizipenak eta sustapena DBH3n

Zurriolan kirolaren sustapena ez delako GKAlko zirkuloko lana bakarrik, atzo DBH3ko ikasleek saio interesgarria izan zuten Leire Olabarria birindulari ohia eta Mirene Etxeberria arkulariaren eskutik. Joku olimpikoak, europako txapelketak, arrakastak, porrotak... Azken batean kirolak bizitzan duen garrantzia jardun zuten denek. Ondoren kiroldegian jarduera inklusibo-kooperatibo batzura antolatuta zituzten Bera-Bera elkarteko bi begiraleren laguntzaz.



Abenduaren 19ko Batzarrerako txostena

Oroitarazten dizuegu datorren ostegunean, abenduak 19, Zurriola Ikastola IKEk bere Ohiko Batzar Orokorra egingo duela Hurrako areto nagusian arratsaldeko 7:00etan hasita. Txostena digitalki jaso nahi baduzue astelehenean bertan, klikatu [hemen](#). Bestela asteartetik aurrera eskuragai izazela duzue Hurrako idazkaritzan. Gogoratu oso garrantzitsua dela **bazkideon partaidetza** Batzar honetan.



Hitzaldia adimen gaitasun handiez

Gaiarekin sentsibilizaturiko ikastolako guraso talde baten ekimenez eta **Aupatz** elkartearen eskutik, datorren asteartean, hilak 17, "Adimen gaitasun handiak" izeneko hitzaldia burutu da Hurrako Areto nagusian, 17:30ean. Guraso antolatzaileek hitzaldiaren egokitasuna haurra-nerabearen inguruan dagoen edozein helduarentzako nabarmendu dute.

Sentsibilizazio-hitzaldia

Adimen Gaitasun Handiak

Nori zuzenduta
Gurasoek, irakasleek eta haurren inguruan dagoen edozein pertsona heldurik.

- Zer dira gaitasun handiak?
- Nolakoak dira gaitasun handiko haurrak?
- Hiruak hausten
- Zergatik identifikatu behar ditugu?
- Antzemate goztiarra
- Garapen emozionala eta intelektual

aupatz

ZURRIOLA Ikastola
Hiruhileko
Egune: abenduak 17
Ordua: 17:30

OHARRAK / AGENDA:

- **HH5:** Domus Vi (Quavitae) egoitzara gabonetako kantak abestera. Baserritaz **zapia** ekarri lepoan jantzita. Abenduak 19. Goizez.
- **HH-LH:** Azken egunetako antolaketa. Abenduak 19-20. [Zirkularra](#).
- **LH3-4:** Igeriketa ikastaroa. Goizez. Abenduaren 16tik 19. [Zirkularra](#).
- **DBH1, 2 eta 4:** 1. Ebaluazioko buletinak ikusgai [Alexian](#). (DBH1-2 eguneraturik).
- **DBH-BATX:** Azken eguneko antolaketa. Abenduak 20. [Zirkularra](#).
- **Gurekin Zerbitzuetan lan egiteko:** [Galdetegia](#).
- **Eskola Kirola:** 7. jardunaldia. [A](#) eta [B](#).
- **Helduen Danborrada:** [Izena emateko orria](#).
- **Zurriola Antzerki Eskola:** "Psikiatrikoko ametsak". Abenduak 19. [Sinopsia](#).
- **ZUT - Z belaunaldiaren aldizkaria:** [Info+](#).
- **Batzar Orokorra:** Abenduak 19. 19:00. Hurrako aretoan.
- **Ate Irekiak:** Aurrematrikulazioa HH. Bihar. 11:00. Sororan.
- **Aisialdiko jarduerak** haurrentzat: [Abenduak 14-15](#).

gabon emanaldiak 50. Zurriola Ikastola

Abenduak 17 San Jose de la montaña zahar egolza 11:00etan
Gabon abesten emanaldia (LH5,malako eta LH6,malako musikako ikasleak)

Abenduak 19 Hurrako musika gelan 18:00etan
Piano emanaldia

Abenduak 19 Hurrako beheko antzerki aretoan 18:00etan
Bolin emanaldia

Abenduak 21 Santo Tomas
Trakilarik Donostiko harigunetik

Abenduak 24 Olientzeroko ikastolaren
Trakilarik Olientzeroko Donostiko harigunetik

Urtarrilak 5
Trakilarik Enege kabalgala Donostiko harigunetik

MANTEO KIROLDEGIA

Multikirola eta tailerrak gabonetan

ohe lastikoa
tailerrak eraikin
puzgarriak jolasak
zinema

-30%
Haur eta nerabeen bileraren berrak

NEGUKO KATALOGOA 2019

ikarrelkar

euskara gida.eus

Euskarazko Produktuen gida 2019-20

2019/12/14 - 2020/01/06

gabonak zuretzat HAURRAK 2019

2019/12/14 - 2020/01/06

gabonak zuretzat GAZTEAK 2019